



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Tubacexeko zuzendaritzak uztailaren 21ean jakinarazi zion enpresa-batzordeari 500 langile kaleratzeko bere asmoa, eta, kalkuluen arabera, eragindako lanpostuetako 150 Laudioko eta Amurrioko lantegietan daude.

Iragarki hori kolpe latza da Aiarako eta eskualde osoko industria-ehunarentzat eta enpleguarentzat; izan ere, enplegu asko galduko lirateke eta eskualdearen enpresa bereizgarri baten jarduera murriztuko dela esan nahi duelako, orain arte Aiarari aberastasuna eta garapen sozial eta ekonomikoa ekarri dizkion zentro batean, alegia.

Horregatik, Aiarako Udalak, adierazpen instituzional honen bidez, Tubacexen erabakiaren aurrean kezkatuta dagoela adierazi nahi du, eta, aldi berean, enpresak iragarritako neurria hasiera batean ezarritako baldintzetan ez gauzatzeko bere esku dauden neurri guztiak bultzatzeko borondatea adierazi nahidu.

1. Aiarako Udalak elkartasuna adierazten die Tubacexek Laudion eta Amurrion dituen lantegietako langileei eta eragindako familiei, eta elkarrizketa sozialetik lan egitera animatzen ditu enpresa eta langileen ordezkariak, egoera zail honen aurrean ahalik eta akordiorik onena lortzeko, enplegua galtzea ekarriko ez duten konponbideak lehenetsiz.

2. Aiarako Udalak enplegua suntsitzeagatik kezkatuta dagoela adierazi nahi du, enpresa estrategiko parte denaren jarduera galtzea deitoratu nahi du, eskualde osoko industria-garapenean funtsezko eragilea baita. Hori dela eta, Tubacexek Aiarako eta eskualdeko traktore sozio-ekonomikoa izaten jarraitzea espero du, Laudion eta Amurrion lantegietan ohiko jarduera-ratioak, enplegua eta kalitatezko lan-baldintzak ahalik eta lasterren berreskuratuz.

La dirección de Tubacex comunicó el pasado 21 de julio al comité de empresa la intención de proceder al despido de 500 trabajadores y trabajadoras de su plantilla, estimando que 150 de los puestos de trabajo afectados radican en sus plantas de Laudio y Amurrio.

Este anuncio supone un duro golpe para el tejido industrial y el empleo de Ayala y la comarca en su conjunto, por la pérdida de un importante número de empleos y la reducción de actividad en un centro productivo insignia para la comarca y que hasta la fecha ha venido aportando riqueza y desarrollo social y económico a Ayala.

Es por ello que el Ayuntamiento de Ayala quiere mostrar mediante esta declaración institucional su preocupación ante la decisión de Tubacex, al tiempo que expresa su voluntad de propiciar cuantas medidas estén en su mano para que la medida anunciada por la empresa no se lleve a término en las condiciones inicialmente establecidas.

1. El Ayuntamiento de Ayala se solidariza con los trabajadores y trabajadoras de las plantas de Tubacex en Laudio y Amurrio y las familias afectadas, y anima a empresa y representación sindical, a trabajar desde el diálogo social, en la búsqueda del mejor acuerdo posible ante esta difícil situación, primando soluciones que no conlleven la pérdida de empleo.

2. El Ayuntamiento de Ayala manifiesta su preocupación por la destrucción de empleo y lamenta la pérdida de actividad de una empresa estratégica y un agente clave en el desarrollo industrial de toda la comarca. Por ello, espera que Tubacex continúe siendo un tractor socio-económico de Ayala y su comarca, trabajando para revertir la situación y poder recuperar ratios habituales de actividad, empleo y condiciones laborales de calidad en sus plantas de Laudio y Amurrio lo antes posible.



3. Aiarako Udalak kalitatezko enplegua defendatzeko eta etorkizuneko industria-proiektu bati eusteko konpromisoa berretsi nahi du. Era berean, Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurilaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die modu proaktiboan jardun dezatela industria-jarduerari eustearen alde eta kalitatezko enpleguaren alde, bereziki, gure lurralderako proiektu estrategikoetan.

4. Aiarako Udalak urteak daramatza Aiaraldeako adierazle ekonomikoak oso kezagarriak direla esaten eta eskualde honek erakundeen aldetik arreta berezia behar eta merezi duela aldarrikatzen. Hori dela eta, duela urtebete baino gehiago Eusko Legebiltzarrak ponentzia bat sortu zuen Aiaraldeako egoera sozioekonomikoa aztertzeko eta eskualdea biziberritzeko neurriak zehazteko, erakundeen arteko jarduera-plan bat diseinatzeari begira. Aiarako Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio, hastear dagoen legealdian ponentzia horrek merezi duen garrantzia izan dezan, irailean zehar lanak aktibatu ditzala.

5. Gure Udalerrian lan eta bizi diren herritar guztiei dei egiten diegu sindikatuek gure herrietako lanpostuen defentsan antolatzen dituzten ekimen eta mobilizazioetan parte aktiboa izateko.

3. El Ayuntamiento de Ayala reitera su compromiso por la defensa del empleo de calidad y el mantenimiento de un proyecto industrial de futuro. Asimismo, insta a la Diputación Foral de Álava, Gobierno Vasco y Gobierno de España a actuar de forma proactiva por el mantenimiento de la actividad industrial y por el empleo de calidad en nuestro tejido económico y, en particular, en aquellos proyectos estratégicos para el territorio.

4. El Ayuntamiento de Ayala lleva muchos años diciendo que los indicadores económicos reales de Aiaraldea eran muy preocupantes y que esta comarca necesita y merece una atención especial por parte de las instituciones. Justo por eso hace más de un año el Parlamento aprobó la creación de una ponencia sobre la situación socioeconómica de Aiaraldea para diseñar un plan de actuación interinstitucional y revitalizar la comarca. El Ayuntamiento de Ayala solicita al Parlamento Vasco que se activen los trabajos de la Ponencia durante el mes de septiembre para que ésta juegue un papel clave en la nueva legislatura.

5. Hacemos un llamamiento a todas las personas que trabajamos y vivimos en Aiaraldea para ser parte activa en las iniciativas y movilizaciones que los sindicatos organicen en defensa del empleo en nuestros pueblos.